

Gelaburuen Batzordearen bilera

Datorren astean, **urriaren 23an arratsaldeko 17:00etan**, Gelaburuen Batzordearen lehen bilera egingo dugu Udarregi Ikastolan (eraikin gorrian). Bertan elkartuko gara gelaburuak eta ikastolako ordezkariak.



“EUSKARAZ BIZI NAHI DUT” MATERIAL-ESKAINNTZA

“Euskaraz bizi nahi dut” mezuak indartsu eta argi transmititzen du euskararen aldeko jarrera. Horregatik da hain arrakastatsua.

Euskararekiko aldekotasuna bistaratzeko lagungarri gertatuko zaizuelakoan kamisetez gain, ogitartekoak biltzeko Boc’n’rolla eta botila ere eskaintzen dizkizuegu. Eta baita oso erabilgarriak diren kotoizko poltsak ere. Beti bezala, kanpaina honen **etekina euskalgintzaren proiektuetara** bideratuko da.

Tutoreari jakinarazi zein den aukeratutako produktua **azaroaren 5a** baino lehen (eskaera orria bera inprimatu eta betez edo papertxo batean aukera idatziz). **Ordainketa eskudirutan** egin behar da (eskariarekin batera tutoreari emanaz).

Produktuen irudi eta neurriak [hemen](#) topatuko dituzue.



Palestinari elkartasuna

Gernika-Palestina taldeak deitutako deialdiarekin bat eginez, datorren astelehenean eguerdiko 12:30etan, Palestinar herriari gure elkartasuna adieraziko diogu Udarregi Ikastolako sarreran (eraikin gorrian). Ikastolako ikasle, guraso eta langileak, agertu diezaiogun palestinari herriari gure elkartasuna.



Nafarroa Oinez

Igande honetan, urriak 20, Nafarroa Oinez ospatuko da. Aurten, Zangozako ikastolari dagokio lekukoa. Animatu! Giro ederrean ospatuko dugu eta!

[Informazio gehiago...](#)



Udal liburutegiko ekintzak

Urriaren 30ean, asteartea, 18:30ean, Sutegi Liburutegian, KONTA DITZAGUN IPUINAK, **5-8 urte** bitarteko haurrentzat eta beren guraso edo zaintzaileentzat, Ixabel Agirresaroberen eskutik.

Izen-ematea, Liburutegian bertan.

[KONTA DITZAGUN IPUINAK](#)



HAUR-HEZKUNTZA

HH 3ko guraso-bilera

Asteartean, urriak 22, 16:45ean haurren gelan, HH 3ko guraso-bilera egingo da.

Zaintza zerbitzua egongo da.



LEHEN HEZKUNTZA

LH5: Arritxuloko irteeraren kobrantza

Gaur, urriak 18, Arritxulora egindako irteeraren lehenengo zatia ren kobrantza egingo dela jakinarazten da, **25,45€**. Kostu osoa 76,35 eurokoa izan da eta kobrantza hiru zatitan egingo da.



Zorriak

LH 3ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



LH3koen irteera

Datorren astean, eguraldiak laguntzen badu, Zubietara egun osoko irteera egingo dugu LH3kook. Zuen seme-alabak jakinaraziko dizue zehazki noiz izango den (eta agendan idatzita ere eramango du). Eskola ordutegia errespetatuko da (9:00-16:30).



DBH

Ez dago berririk.